

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

TrashSort-en bezeroak ingurumenarekiko kontzientzia duten eta jasangarritasunarekin konprometituta dauden pertsonak eta erakundeak dira. Pertsona hauek ez dira hondakinen kudeaketarekin soilik arduratzen; gainera, ingurumenean eragin positiboa izateko modu berritzaileak bilatzen dituzte, eguneroko bizitzan erraztasuna eta eraginkortasuna integratuz. Teknologiaren erabilera errazteko interesa dute, eta horri esker, prozesuak modu automatizatuan egitea baloratzen dute, denbora aurrezteko eta eguneroko zereginak sinplifikatzeko.

Segmentu honetan bi talde nagusi nabarmentzen dira. Alde batetik, **etxeko erabiltzaileak**, hondakinen bereizketa errazteko irtenbideak bilatzen dituzten familiak eta norbanakoak, beren etxean jasangarritasunarekin bat egiten dutenak. Beste alde batetik, **bulego eta erakundeak**, ingurumenarekiko arduraz jokatzuz, birziklatze-politika eraginkorrak ezarri nahi dituzten enpresak eta bulego txikiak.

Hauek guztiak TrashSort bezalako produktuetan interesa dute, automatizazioak beren bizitzan eta ingurunean dakarren balio erantsiagatik. Hondakinak bereizteko eta birziklatzeko zailtasunak konponduz, denbora aurreztea eta ingurumen-inpaktua murriztea lortzen dute. Horregatik, gure bezeroak dira, beren balioak eta helburuak TrashSort-en irtenbideekin bat datozenak, eta, aldi berean, eguneroko bizitzan jasangarritasuna teknologiarekin integratzeko prest daudenak.